

**DONOSTIAKO AZKEN ARTZIPRESTEA
LORENTZO ALTUNA,
1600**

Pello Joxe ARANBURU UGARTEMENDIA

KAMINO doktoreak, Donostiari buruzko bere liburu interesgarrian, Gipuzkoako Artzipreztazgo Nagusiko, GANeko artzipresteak Herrialde osoan eskumen bereziak zituela dio. Hola nola, XVI. mendean, horiek Donostiako seme izateaz gainera, GANeko epaile, Santa Maria parrokian egoitza eta 1531. urteaz gero, Iruñeko gotzainaren ondoan lehen jezarlekua zegokien. Gainera, gotzainak emandako ahalmen kanonikoak zituzten, bere notaritzaren barne:

“En el día, los oficiales foráneos de San Sebastián, según la fórmula del título que les despachan los obispos de Pamplona, pueden conocer en todo el arziprestazgo mayor de Guipúzcoa sobre causas eclesiásticas hasta dar sentencias definitivas, menos aquellas que están reservadas a los mismos obispos. Tienen su notario, pueden imponer censuras, y absolver de ellas, nombrar delegados que en su lugar ejerzan jurisdicción y disfrutan los derechos correspondientes a su oficio. Además, los jueces foráneos de San Sebastián actualmente se intitulan arciprestes de Guipúzcoa, cuyo empleo viene a refundirse en aquellos...”¹.

1. Camino Orella, Joaquín Antonio, 1963, *Historia civil-diplomática-eclésiástica, anciana y moderna de la ciudad de San Sebastián*, (San Sebastián 1963), 182 orr.

Laster argitaratzea espero dudan liburu batean, erakunde nahiz titulu horren azken uneak adieraziko ditut. Trentoko kontzilioko gastuak ordaintzeko GANeko Kleroaren eztabaidan, Joan Zandategi zen artzipreste eta bisitaria, gotzainaren eskutitza, Tolosako batzar berezian irakurri zuena, 1551.urtean.

“Ubo alboroto, al fin le echaron, y trataron sus cossas” idatzi zuen Adrian Urrutiakoak, Alkizako erretore eta GANeko idazkariak². Berriro, 1567an, Donostiako Zandategi artzipreste eta bikario jeneralak jubileoa agindu zuten GANeko batzarrarekin kontatu gabe. Erakunde honek asmoa ez zuen onartu.

Kargu horretan, Lorentzo Altunak jarraitu zion Joan Zandategi hil zenean, 1571n. Iruñeko bikarioen eta GANeko artziprestearen arteko auzia, Iruñea, Madril eta Erroman 1566/1576 urteetan lehiatu eta irabazi zenean, Erromak GANen alde emandako epaia Iruñeko sinodoan irakurri zen, GANeko artzipresteak ohiko jezarlekua gordez, baina, erakundearen barruan, hots GANen, ardura horren ahalmenak zalantzan jarri ziren. 1588an, Tolosako bikario eta L. Altuna artziprestearen artean eztabaidak areagotu egin ziren, bakoitzaren botereak jokuan zeudelarik, nonbait. Izan ere, artzipresteak GAKeko parroketan ere lehentasuna eskatzen zuen³.

“Fundados en esta dignidad suya, los arciprestes mayores de Guipúzcoa habían pretendido tener puesto preferente sobre todos los curas párrocos de su arciprestazgo, aunque fuese dentro de los mismas iglesias parroquiales que administraban aquellos”⁴.

Mendearen azken hamarkadan, GANeko erakundeak hautatutako karguak finkatu ziren, idazkaria eta diruzaina, alegia.

2. DEHA, Korriedoak, A, 3, A y B, 1.esp.

3. Ibidem, 1588.urtean.

4. Camino Orella, A., 1963, a.o., 173 or.

Bernardo Rojas Sandobal izendatu zuten Iruñeko gotzain, honek sinodorako deialdia egitean, GAN eta artziprestearen arteko gatazka areagotu egin zen. GANek Ibarra lizentziatua, idazkaria eta Herniobea korriedoko urteko prokuradore zen Amasako Abata bidali zituen Iruñera, azken batean, hauek erakundea ordezkatzeko zutelarik. Gainera, artziprestearen aurka Erromara jo zen. L. Altunak bakeak egiteko borondatea erakutsi bazuen ere, GANek bereari gogor eutsi zion.

GANeko urteko Prokuradore Generalaren figura finkatu zen 1600ean, korriedoz korriedo hautaturik eta hurrengo bi urteetan, Donostiako korriedoak Prokuradore General berria GANeko korriedo guztien artean aukeratzea eta kongregazioak Tolosan egitea onartu zen. Beraz, L. Altuna izan zen Donostiako azken artzipreste historikoa.